T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

DEIALDIA, OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKOA IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZUKO IKASTETXEETAKO ZERBITZUBURUAREN 1 PLAZA.

BIGARREN IZENDAPEN OSAGARRIA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko azaroaren 3an egindako bilkuran honako erabaki hau hartu zuen:

Behin amaiturik Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko ikastetxeetako zerbitzuburuaren 1 plaza oposizio-lehiaketa bidez betetzeko hautapen-prozesua –deialdi hori Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko azaroaren 17an hartutako erabaki bidez onetsi zen, eta 2025eko 242. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 4koan, argitaratu zen–, eta bat etorrita hautaketa-epaimahaiak emandako izendapen-proposamenarekin, behin eskatutako agiriak aurkeztuta, eta bete dadin Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua onesten duen 113/1985 Foru Dekretuaren 32. artikuluan xedatutakoa, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Iruñeko Udaleko funtzionario izendatzea, Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko ikastetxeetako zerbitzuburuaren lanposturako. Plaza jarraian xedatutakoaren arabera esleituko zaio:

IZENDATUA	ESLEITUTAKO PLAZA	ARAUBIDE JURIDIKOA
Biurrun Pérez, Miren	1-220000-1	Funtzionarioa

2. Izendatutako izangaiak **2026ko azaroaren 16an** hartu beharko du lanpostuaren jabetza.

3. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iruñeko Udalaren webgunean(www.pamplona.es/eu), argitaratzeko agintzea.

Erabaki honen aurka honako errekurtso hauetako bat paratzen ahal da, aukeran:

- Berraztertzeko errekurtsoa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina.

- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta hortik aitzina.

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko administrazioarekiko auzien atalari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2026ko azaroaren 3an.- Tokiko Gobernu Batzarreko idazkaria, Garbiñe Bueno Zabalza.